



ALDEZ AURREKO KONTSULTA, FAKTURAZIO BETEBEHARREN ARAUTEGIA ALDATZEKO FORU DEKRETU PROIEKTUARI BURUZKOA

Maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuak (xedapen orokorrak egiteko prozedura eta araugintza teknikari buruzko jarraibideak onesten ditu) I. eranskineko 9. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, eta xedapen arauemaileak prestatzeko prozeduran herritarren parte hartzea hobetzeko helburuz, goiburuan aipatutako aurreproiektua prestatu aurretik kontsulta publikoa egin behar da; kontsulta horretan, iritzia azaltzeko eskatu behar zaie etorkizuneko arauaren eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkagarritasun handieneko erakundeei, honako gai hauek direla eta:

- a) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak
- b) Onetsi nahi den arauaren beharra eta egokitasuna
- c) Arauaren helburuak
- d) Egon daitezkeen bestelako aukerak (arautzaileak eta arautzaileak ez direnak).

Aurrekoa betez, kontsulta bat planteatzen da, fakturazio betebeharrei buruzko arau esparrua ezarri behar duen etorkizuneko xedapenaren eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkarietasuna duten erakundeei beren iritzia azal dezaten eskatzeko.

Herritar, erakunde zein elkarteek, egoki baderitzote, galdera sorta honetan planteatutako alderdiei buruz duten iritzia adierazi ahal izango dute, apirilaren 15era arte, aurrezkontsultak@araba.eus helbide elektronikoko postontziaren bidez.

AURREKARIAK	18/2013 Foru Dekretua, maiatzaren 28koa, fakturazio betebeharren arautegia onesten duena.
--------------------	-------------------------------------------------------------------------------------------



KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK	Fakturazio betebehar batzuk aldatzea eta eguneratzea.
ONETSI NAHI DEN ARAUAREN BEHARRA ETA EGOKITASUNA	Beharrezkoa eta egokia da aldaketa horiek onestea.
HELBURUAK	Fakturazio betebehar jakin batzuetan aldaketak eta eguneratzeak egitea.
EGON DAITEZKEEN BESTELAKO AUKERAK (ARAUTZAILEAK ETA ARAUTZAILEAK EZ DIRENAK)	Azaldutako helburu horiek gauzatzeko aukerarik egokiena dela jotzen da.